



Errefuxiatu eta desplazatuak ere
eskubideen jabe

ERAKUSKETAREN GIDA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Udala



ALBOAN

Aurkibidea

1.	Errefuxiatutako pertsonak munduan	3
2.	Zein dira pertsona errefuxiatuak, desplazatuak eta migratzaileak?	4
3.	Errefuxiatuen eskubideak	6
4.	Beste pertsona baten lekuan egotea	7
5.	Errefuxiatzearen arrazoiak: gerra eta gatazka	8
6.	Emakumeak eta haurrak	10
7.	Errefuxiatuak eta artea	11
8.	Gizarte kulturantzina	16
9.	Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua	18
10.	JRS Laku Handietan	19
11.	JRS eta ALBOAN: misio partekatua	21
12.	Lanaren adibide bat: Cishemere	22

ALBOAN

Funikular plaza, 2 • 48007 **BILBAO**
Tel.: 94 415 11 35 • Faxa: 94 416 19 38 • E-mail: alboanbi@alboan.org

Bergamín kalea, 32 • 31004 **PAMPLONA-IRUÑEA**
Tel./Faxa: 948 23 13 02 • E-mail: alboanna@alboan.org

Ronda kalea, 7 - 4. ezk. • 20001 **DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**
Tel.: 943 27 51 73 • Faxa: 943 32 02 67 • E-mail: alboangi@alboan.org
www.alboan.org

1. Errefuxiatutako pertsonak munduan

Gaur egun, gauetik goizera beren ondasunak hartu eta beren lurraldea, etxea eta jendea uztera behartuta daude milioika pertsona: biztanleria errefuxiatua eta desplazatua da hori, indarrez erbesteratutako 38 milioi pertsona. Horietatik % 80 emakumeak eta haurrak dira.

Gaur bertan, Afrikako 5.052 biztanle, Ekialde Hurbileko 2.316, Asiako 2.124, Latinoamerikako 1.284 eta Europako 1.224 biztanle beren etxeak uzten ari dira bizi-arriskuan daudelako. Egunero, guztira, 12.000 pertsonak ihes egiten dute babes bila beren etxeetatik, herrialdeko beste leku batera edo atzerrira. Zorigaiztoko mugimendu etengabea da, eta urte-bukaeran 4.280.000 pertsonak beharko dute laguntza eta babesa.

Interes ekonomiko eta politikoen –liskar etnikoen, politikoen edo erlijiosoen atzean ezkutaturik– mundu osoko milaka pertsona bultzatzen dituzte arnasa lasai hartuko duten lekuren bat bilatzera.

Gaur egun, guztira, 38.400.000 pertsona daude indarrez erbesteratuta.

Batzuek (gutxiengoak) mugak gainditu eta beste herrialde batzuetan errefuxiatu ziren: 13 milioi errefuxiatu.

Beste batzuek (gehiengoak) leku seguruagoak bilatu zituzten beren herrialdean: ofizialki, herrialde barruan desplazatutako 22 milioi pertsona daude. Horiez gain, 3.000.000 pertsona inguru antzeko egoeretan bizi dira, baina errefuxiatu gisa onartu gabe daude: kolonbiarrak, birmaniarrak, irakiarrak, afganistandarrak, armeniarrak, azeriarrak... Horiek ezin dira beren herrialdera itzuli, barne-egoerak uzten ez duelako.

Munduan 100 errefuxiatu bakarrik baleude,

- ✓ 41 Ekialde Ertainean egongo lirateke
- ✓ 23 Afrikan
- ✓ 16 Asiako erdialdean eta hegoaldean
- ✓ 7 Asiako hego-ekialdean
- ✓ 6 Europan (horietatik erdiak Balkanetan)
- ✓ 5 Ameriketara (ia gehienak Estatu Batuetan)

Herrialde barruan desplazatutako 100 pertsona bakarrik baleude munduan,

- ✓ 51 Afrikan egongo lirateke
- ✓ 15 Asian
- ✓ 14 Latinoamerikan (ia gehienak Kolonbian)
- ✓ 12 Europan (gehiengak Balkanetan)
- ✓ 8 Ekialde Ertainean

KONTSULTATU WEB ORRI HAUEK ERREFUXIATUEN EGUNGO EGOERARI BURUZKO MAPA BAT EGITEKO:

<http://www.acnur.org/pais/index.php>
http://www.bbc.co.uk/spanish/especiales/mapa_etnico/refugee_movements.stm

2. Zein dira pertsona errefuxiatuak, desplazatuak eta migratzaileak¹?

ZEIN DIRA ERREFUXIATUAK?

Errefuxiatuen Estatutuari Buruzko Genevako Hitzarmena-ren arabera, errefuxiatua honako hau da: "*arrazagatik, erlijioagatik, herritartasunagatik, talde sozial bateko kide izateagatik edo iritziz politikoengatik jazarria izateko susmo oinarrituen ondorioz bere herritartasunaren herrialdetik kanpo dagoena eta bere herrialdeko babes hori hartu ezin duena edo, aipatu susmoengatik, babes hori hartu nahi ez duena; edo herritartasunik ez duena eta, aipatu gertaerengatik, lehen ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egotearen ondorioz hara itzuli ezin duena edo, susmo horiengatik, itzuli nahi ez duena*".

ZEIN DIRA HERRIALDE BARRUAN DESPLAZATUTAKO PERTSONAK?

Herrialde barruan desplazatutako pertsonak (IDP, ingelesezko siglak) biolentziaren zirkulu amaigabeen harrapatuta daudenak dira, eta, errefuxiatuek bezalaxe, mehatxuen aurreko erreakzio normal gisa, gatazka-eremuetatik edo zibil-jazarpenetatik ihes egiten dute. Pertsona desplazatu ugari daude, munduan gutxi gorabehera 20 eta 25 milioi bitar.



tean. Errefuxiatuen kasuan, pertsona zibil batek bere herrialdearen nazioarteko muga gainditu eta ihes egiten duenean, pertsona hori errefuxiatu bihurtzen da eta nazioarteko babesa eta laguntza jasotzen du; baina antzeko egoeran pertsona bat bere herrialdearen barruan desplazatzen bada, barne-desplazatu bihurtzen da. Herrialde barruan desplazatutako pertsonentzako nazioarteko laguntzak zailtasun ugari egin behar die aurre, baina ACNURek (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa), gaur egun, desplazatutako 6,4 milioi pertsonari laguntzen die. Talde horri eraginkorrago nola lagundu aztertzeko nazioarteko eztabaida irekita dago gaur egun.

NOLA BEREIZTEN DITU ACNURK ERREFUXIATUAK ETA MIGRATZAILE EKONOMIKOAK?

Migratzaileek, normalean, borondatez uzten dute beren herrialdea, bizimodu hobea baten bila. Errefuxiatuentzako asilo-herrialdeko egoera ekonomikoa ez da beren segurtasuna bezain garrantzitsua.

Praktikan, bereizketa hori egitea zaila izan daiteke, baina funtsezkoa da: migratzaileek beren jatorriko herrialdeko gobernuaren babesa izaten dute, errefuxiatuek, aldiz, ez.

Gisa horretako galdera gehiago bururatzen bazaizkizu, adibidez:

Nork erabakitzen du pertsona bat errefuxiatua den edo ez, ACNURek edo gobernuak hartzen duten erabakia da?

Errefuxiatutzat har daiteke gerratik edo gerrarekin lotutako egoerengatik, esaterako, gosea edo babes falta, ihes egiten duen pertsona?

Desertoreak errefuxiatu izan daitezke?

Eta kriminal bat?

Arau batzuk ez betetzeagatik erasoei aurre egiten dieten emakumeek

errefuxiatutzat onartuak izatea eska dezakete?

Emakume batek bere herrialdera itzuliz gero berari edo bere alabari genitalak moztuko dizkioten beldurragatik errefuxiatu-egoera eska dezake?

Orientazio sexualagatik jazarria izateko beldurra duen pertsona bat errefuxiatu izan daiteke?

Kontsultatu web orri hau, eta galdera horien erantzuna aurkituko duzu: www.acnur.org

3. Errefuxiatuen eskubideak

Errefuxiatuek asilo segurua izateko eskubidea dute. Hala ere, nazioarteko babesak segurtasun fisikoa baino zerbitu gehiago eskaintzen du. Errefuxiatuak gutxienez jaso behar lituzke legezko egoiliarra den beste edozein atzerritarrek dituen oinarrizko eskubideak eta oinarrizko laguntza. Hori dela eta, errefuxiatuek oinarrizko eskubide zibilak dituzte, pentsatzeko eta mugitzeko askatasuna eta pertsona gisa errespetatuak izateko eskubidea barne.

Halaber, pertsona errefuxiatuek eskubide ekonomikoak eta sozialak dituzte, beste pertsonak bezalaxe: laguntza medikoa jasotzeko eskubidea, helduentzako lanerako eskubidea eta haurrak eskolatzeko eskubidea.

Egoera batzuetan, errefuxiatu-talde jendetsuen etorrera esaterako, asilo-herrialdeek eskubide batzuek mugatzea erabaki dezakete, adibidez, mugitzeko askatasuna, lan egiteko askatasuna edo haurrentzako eskolatzeko egokia. Hutsune horiek nazioarteko komunitateak bete beharko ditu ahal denean. Hala, beste baliabiderik ez dagoenean erabilgarri (asilo-herrialdeetako gobernuena edo beste agenzia batzuen), ACNURek, gobernu kanpoko beste hainbat erakunderekin batera, laguntza eskaintzen die beren oinarrizko beharrak estali ezin dituzten errefuxiatuei (eta beren mandatupean dauden beste pertsona batzuei). Laguntza hainbat modutakoa izan daiteke: diru-laguntzak; elikagaiak; ekipoak, adibidez, sukalderako tresnak, osasun-tresnak edo etxebizitzetarako tresnak; esparru edo zentro komunalean bizi diren errefuxiatuentzat eskolak edo klinikak ezartzeko programak.

Ahalegin ororen helburua da errefuxiatuek ahalik eta azkarren laguntza jasotzeko beharra ez izatea ziurtatzea; baliteke horrek jarduera formalak egin behar izatea eskatzea, sarrerak edo prestakuntza-proiektuak ziurtatzeko.

Errefuxiatuek betebeharrak batzuk ere badituzte, bereziki, asilo-herrialdeko legee dagozkienak.



4. Beste pertsona baten lekuan egotea²

Ondoren, emakume errefuxiatu baten testigantza duzu. Banaka irakurtzea proposatzen dizugu, eta, gero, landu egiten diren galderak. Gero, taldeka, ikaskideei aurkez diezazkieke zue ondorioak.

Sri-ren testigantza³.

Sri-k hamahiru urte ditu, eta bere jaioterriko (Aceh, Indonezia) oroitzapenak kontatzen dizkigu. Sumatrako iparraldeko errefuxiatu-esparru batean hiru urte daramatzen arren (denboraldi luzea hain adin txikiko norbaitentzat), lehengo lagunak faltan botatzen ditu. "Lagun asko nituen nire herrian eta irakasle onak" dio. "Oso triste nengoen gatazkaren ondorioz ihes egin behar izan genuen egunean. Herri osoa egoera kaotikoan zegoen. Eskolak itxita zeuden, eta irakasleek ihes egin zuten bizia galtzeko beldurragatik. Gelditu ziren bizilagunek eta lagunak negar egiten zuten, eta babestuko gintuztela esaten ziguten, baina nire gurasoek beldur gehiegi zuten. Ondasun guztiak utzi eta ihes egin genuen, eta Sumatrako iparralderantz joan ginen" azaltzen du Sri-k poliki.

Sarritan, errefuxiatu-esparruko haurrek ez dute hezkuntza formalik jasotzeko aukerarik izaten, bereziki, lehen mailako irakaskuntza gainditu dutenek. Tokiko eskolak egon arren,

garestiegiak dira errefuxiatuen familientzako. Sri, ordea, zorionekoa da. Esparrua dagoen herriko eskolako bigarren mailako irakaskuntzako bigarren kurtsoan dago, Sei Lapaneko (Medan-etik hiru bat ordura) errefuxiatu-esparrutik hurbil. Erakunde humanitario batek beka bat lortu dio, bere gurasoek ezin baitzuten eskolatzea ordaindu. "Ikastea asko gustatzen zait, adimentsuago egiten bainau", dio Sri-k itxaropenez beterik. Esparruan lehen mailako irakaskuntza bakarrik jaso daiteke, gutxi batzuk besterik ez dute ikasten jarraitzeko aukera.

Tapanuli barrutiaren hegoaldeko berrestablimenduen eremu batean, Sumatraren iparraldean, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuko (JRS) langile batek prestakuntza ematen die hurrei noizbehinka. "Asko gustatzen zaie" dio, "esparrura etortzen naizen bakoitzean zerbait erakusteko eskatzen didate. Eta sinistu ez arren, etxeko lanak emateko eskatzen didate". Etxeko lanak, normalean, ez dira Indonesiako haurren zereginik gogokoena izaten, baina badirudi gatazka-eremuetako haurrak eskolaztearen garrantziarekiko sentsibilizatuago daudela, bai eta beren bizitzekin aurrera jarraitzeko eta etorkizun hobetagoa bilatzeko gogotsu daudela ere.

Irakurketari buruzko galderak.

Zer iruditu zaizu testua?

Zerk hunkitu zaitu gehien?

Orain arte zer ez zenekien errefuxiatuei buruz? Zer ikasi duzu?

Eman dezagun testigantza egin duen pertsonaren ikaskidea zarela.

- Zure ustez, zer da pertsona horren egoeraren gauzarik larriena? Eta gertaera horrek pertsonengan eta komunitatean duen eraginarena?

- Zer dago jokoan kasu horietan?
- Zein eskubide izan behar lituzkete? Eta zein betebehar?

Zu zeu nolakoa zaren jakinda, zer eragin izango luke egoera horrek zure bizitzan? Zein erreakzio izango zenuke? Zer egingo zenuke?

Zer esperoko zenuke GKE eta nazioarteko erakundeengandik? Eta zu bezalako pertsonengandik?

² "Cartógrafos de la vida'ren egokitzapena, Caja de Herramientas bilduma, 1 zk., SJR Kolonbia, Bogota 2000. Adriana Santos Velásquez eta Carlos Esteban Mejía Solano.

³ Web gune honetatik hartutako testigantza: www.pedroarrupe-award.net

5. Errefuxiatzearen arrazoiak: gerra eta gatazka⁴

Desplazaturako eta errefuxiatutako pertsonak beren etxeak uztera behartu dira, bai bat-batean bizirauteko alternatiba bakarra dela egiaztatu ondoren, bai, besterik gabe, horretara behartu dituztelako. Kongoko Basanga Jean-ek ihes egin behar izan zuen bizirauteko, eta herritik nola irten ziren gogoratzen du:

“(…) ESKUAK HUTSIK GENITUELA, EZ GENUEN EZTA ARROPARIK ERE, UNE HARTAN HELBURU BAKARRA NIRE SEME-ALABEN BIZIA BAITZEN. LEHEN EGUNEAN DENOK ATSEKABETUTA GEUNDEN. AMARIK GABE GINDOAZEN, DENA GALDU GENUEN, GURE ETORKIZUNA BELTZA ZEN ETA EZ GENEKIEN ZER EGIN.”

BASANGA JEAN, KONGOKO E.D.KO DESPLAZATUA

Komunitateak beren lurrak uztera behartzeko arma nagusietako bat beldurra da. Eta batzuetan ihesak pilaka gertatzen dira. Kongoko Errepublikako Demokratikoan, etsaiak berehala erasoko ziela eta, tokiko agintariek ihes egiteko gomendatu zien herritarrei.

“1998KO AZAROAREN 15EAN, IGANDEA, GOIZEKO 9:00AK INGURUAN, JENDE GEHIENA ERLIJO-OSPAKIZUNETAN ZEGOELA, ERREBOLTARIAK GURE HERRIRA HURBILTZEN ARI ZIRELA ZIOEN BERRIA IRITSI ZEN. BENETAKO NAHASKETA SORTU ZEN HERRI OSOAN, JENDEA BEREN EMAZTEA, SENARRA EDO SEME-ALABEN BILA ZEBILEN, ALDE EGIN ETA HERIOTZATIK IHES EGITEKO. (...) DENAK IHESI ZIHOAZENEZ –POLTSAK BURUAN ETA HAURRAK NIGARREZ– GUK ERE ALDE EGIN GENUEN BIDEA ELKARREKIN EGITEKO. NIRE EMAZTEAK MANIOKA- ETA ARTO-IRIN PIXKA BAT BAKARRIK HARTU AHAL IZAN ZUEN. (...) HASIERAN, GOGOR EUTSI NAHI IZAN NION ETA FAMILIA KONBENTZITU NAHI NUEN IHES EGIN EZ ZEZAN, 1997KO ASKAPEN-GERRAN BEZALA, ETA ESAN NIEN KURUNGUKO MISIOLARIEN ETXEAN BABESTUKO GINELA. BAINA HERRITARREK ETA MILITARREK ALDE EGITEKO GOMENDATU ZIGUTEN.”

JEAN PERRE KAHYA, KONGOKO DESPLAZATUA

⁴ Carles Casals-en, ‘Expulsados de su tierra’ liburutik hartutako pasarteak, Milenio arg., Lleida 2004.

Komunitate bat kanporatzeko arrazoiek irizpide zeharo desberdinak izan ditzakete, hala nola arrazoi **ekonomikoak, politikoak, etnia desberdinak edo liskar erlijiosoak.**

“ZERGATIK? LEHEN HORIXE GALDETZEN NION NIRE BURUARI. ORAIN, BIDAIKO BESTE ADISKIDE BATZUEKIN BATERA, GALDERA BESTELAKOA DA: ZERGATIK EGITEN DUTE? USTE DUT MOLESTATU EGITEN DIEGULA, EZ TALDE ARMATU BAT EDO BESTEA DAGOELAKO, BAIZIK ETA GURE LURRAK BEREN NEGOZIOETARAKO NAHI DITUZTELAKO, BESTERIK GABE. INOIZ EZ NUEN HORI PLANTEATU, BAINA, NIRE USTEZ, NEKAZARIEN ONDASUNEN ATZETIK DABILTZA”

MARCELO, MEXIKOKO DESPLAZATUA

Hori bera egiaztatzen du Munduko Bankuaren *Gatazken arrazoi ekonomikoak* txostenak. “Gehienetan mugimendu errebolta-riek eta gobernuak diamanteen, kafearen eta balio handiko beste lehengai batzuen salerosketa menderatzeko hasten dituzten borrokek zirikatzen dituzte gerrak, eta ez gatazka politiko, etniko edo erlijiosoek.”

Taldeka⁵

Aztertu egunkari bateko nazioarteko orrialdeak.

Aurkitu munduko edozein lekutako gerra- edo gatazka-eremu bati buruzko artikulu bat.

Artikulu horiek eta aurki ditzakezuen beste iturri batzuk erabiliz: azaldu zein diren

gatazkaren arrazoiak, aztertu nola sufritu duen biztanleria zibilak gatazkan zehar, eta gatazka horrek errefuxiatuak eta desplazatuak sortu dituen ala ez.

Ondoren, ikerketa-lanak bateratu eta elementu komunak ikus ditzakezue.

⁵ Web orri honetatik egokitutako proposamena: www.pedroarrupe-award.net

6. Emakumeak eta haurrak

Biztanleria errefuxiatuaren talde guztietan erbesteratutako pertsonen erdiak gutxienez emakume helduak eta neskatilak izan ohi dira. Beren etxean, gobernuen eta kasu askotan familia tradizionalen egituraren babesik gabe, emakumeak sarritan egoera zaugarrian egoten dira. Erbestera ihes egiteko egun luzeen gogortasunari, jazarpenari edo axo-lagabetasun ofizialari eta askotan abusu sexualari egin behar izaten die aurre, baita behin ustezko babes-lekura iritsitakoan ere.

Emakumeek mehatxu pertsonalei eta jasan behar izaten dituzten irain sozialei aurre egin behar izateaz gain, familien segurtasun fisikoaz, ongizateaz eta biziraupenaz arduratu behar dute. Azken urteetan, ACNURek hainbat programa berezi gauzatu ditu emakumeek legearen babesa izan dezaten (berdintasun-kondizioetan) eta oinarrizko gaiak eta zerbitzuak eskura ditzaten ziurtatzeko, beren bizitzak berregiten saiatzen diren bitartean.

Roshani hainbat urtetako esperientzia zuen irakaslea zen Asiako Hegoaldeko herrialde batean. Herrialdea uztea erabaki zuen, tropa militarrek bahitu ondoren.

Alemanian bizi zen anai batekin harremana izaten jarraitu zuen, eta hark bisitatzeko egin zion gonbitaz baliatu zen. Dena antolatuta zegoen kontratu batean, bere pasaporte eta txartela eman zituen eta lagun batek lagunduko ziola ziurtatu zioten.

Roshani Kieverako (Ukraina) hegazkin batean sartu zuten, han, ustez, hegazkinaz aldatu behar baitzuen. Hara iritsi zenean, ustezko hiru 'lagunek' bidaiari-dokumentuak kendu zizkioten, eta esan zioten orain beren kargu zegoela, Roshani preso gelditu zen apartamentu batean, herritartasun desberdineko beste bost emakumerekin batera, eta prostituzioan aritzera behartu zuten.

Alemanian anaiarekin harremanetan jartzeko egin zituen ahalegin guztiak, alferrikakoak izan ziren. Lau hilabete geroago, Roshani kamioi batean zihoan gauetz Sri Lankako beste bi emakumerekin. Ez zekien nora zihoan. Hainbat egunez gauetz bakarrik bidaiatu ondoren, gidariak esan zien Berlinen zeudela, eta abandonatuta utzi zituzten. Gau batean, polizia atxilotu eta espetxe batera eraman zituen, Alemanian legez kanpo egotea leporatu zieten, beren historiaren inolako frogarik gabe. Roshanik asilo-eskaria egin zuen eta abokatu baten laguntzarekin aske utzi zuten, eta asilo-eskatzailen zentro batean sartu zen.

“GERRAK GURE BIZITZA ALDATU DU, BAINA EZ GURE ESPIRITUA – DESPLAZATUTAKO EMAKUMEEN ESPERIENTZIA”
LANETIK HARTUTAKO TESTUA. (JRS - 2001)

Taldeka lan egiteko:

Zure herrialdera iristen den emakume- eta haur-kopurua gehitu egin da azkenaldian. Zuek duzue talde zaugarri horiek behar bezala babesteko erantzukizuna.

Batik bat, zein gairi egin behar diezue aurre?

Zein neurri hartuko zenituzkete haien babesa ziurtatzeko?

7. Errefuxiatuak eta artea

**HELBURUA EZ DA MALKOA XUKATZEA, HORI AZKAR EGITEN BAITA.
EZTA ERRUKI PIXKA BAT SENTITZEA ERE, HORI ERRAZEGIA BAITA.
HELBURUA DA KONTZIENTE IZATEA ETA EZ HARAT-HONAT IBILTZEAREKIN
KONFORMATZEA, GURE PARADISUKO ATETXOAZ KEZKATUTA.
HELBURUA DA LO-KULUXKA GOXO ETA ATSEGINETIK ESNATZEA,
GURE INGURUAN DENA ERREGUA ETA ETSIPENA BAITA.
HELBURUA DA EZ ONARTZEA GU BAKARRIK IZATEA ZORIONTSU”**

MAKELÉ WOLLO, IDAZLE ETIOPIARRA.

Errefuxiatu batzuk aurkeztuko dizkizugu. Horiek, egoera gogorak jasan behar izan dituzten arren, beren sentimenduak eta bizipenak artistikoki bideratu ahal izan dituzte.

Horiek guztiak ACNURen ‘errefuxiatu aipagarrien’ galerian agertzen dira. Beren bizitzari, beren ekarpen artistikoei edo pertsona horien antzeko beste batzuen bizitzari buruz ikertzeko proposatzen dizuegu.

Isabel Allende⁶

“Askotan, bizirauteko eta nire familia babesteko, lana gogor egitea izan da izan dudan aukera bakarra. Erbeste-teratu politikoa eta inmigrantea izan naiz, eta horrek ematen dio indarra pertsonari.” Horixe erantzun du Isabel Allende Txileko idazleak galdetu zitzaionean zerk bultzatu zuen herrialdetik irtetera. Haren eleberririk mundu osoan ospetsu diren Latinoamerikako klasiko bilakatu dira.

Allendek erbestera joan behar izan zuen bere osaba, Salvador Allende lehendakaria, 1973ko irailaren 11n Augusto Pinochet jeneralak zuzendutako golpe militarrrak postutik kendu ondoren. Isabelek heriotza-mehatxuak jaso zituen, eta jakin zuenean bere izena militarren zerrenda beltzean zegoela, Venezuelara ihes egin zuen bere senar eta bi seme-alabekin. Bisaturik eta lanik gabe iritsi zen herrialde horretara, baina kazetari-tzako ikasketekin jarraitzeko modua aurkitu zuen Venezuelako ‘El Nacional’ egunkarian kolaborazioak eginez.

Gobernuz kanpoko hogeit hamar urte baino gehiagotan parte hartzen du, besteak beste, abusuen biktima diren

emakume eta haurrei laguntzen dien Madre eta talde etnikoei laguntzen dien Canal Community Alliance. Haren fundazioa ere, ‘Fundacion Isabel Allende y las Becas Paula’, haren alaba Paularen (1992an hil zen) eskaeraz sortu zen. Fundazio horrek bekak ematen dizkie baliabide gutxi dituzten haur eta emakumeei.

1990ean Txilen demokrazia berrezarri ondoren, Isabel Gabriela Mistral saria jasotzera itzuli zen 15 urte erbesteratuta egon ondoren. Sari horrek ospe handia du herrialdean.

Ikertu:

Aipatu Isabel Allenderen hiru eleberririk.

Zerk amaitu zuen Augusto Pinochetek diktadura militarra?

Zein akusazio daude gaur egun Augusto Pinochetek aurka?

Zertan datza Amaipuntua legea?

⁶ Atal honetan ACNURen web orria (www.acnur.org) hartu dugu erreferentzia gisa.

Gilberto Gil

Gilberto Gil brasildarraren musika bere sorterriko erritmo eta soinetan inspiratu zen, eta Europan erbesteratuta egon zenean, entzule ugari –Munduko Musika deritzona ezagutzen hasi berriak– Brasilgo musika ezagutu ahal izan zuten.

Gil Tropikaliaren aitzindarietako bat bilakatu zen. Tropikalia mugimendu kulturala eta musikala zen eta Brasilgo jatorrizko estiloak rockarekin eta instrumentu herrikoiekin konbinatzen zituen. Horrek arteen berpizkundea eragin zuen Brasilen. Tropikalia mugimendua mehatxutzat hartu zen diktadura militarrean eta 1968an Gil eta Caetano Veloso atxilotu egin zituzten, Brasilgo himno nazionala eta bandera ez errespetatzeaz akusatuta. Bi hilabete geroago askatu zituzten, baina ekitaldi publikoak egitea debekatu zitzaien. Brasildik alde egitea erabaki

zuten eta Londresen erbesteratu ziren, Salvadorren bi agur-kontzertu eman ondoren.

1972an, izar bilakatuta itzuli zen Brasilerara, eta, gaur egun, bere herrialdeko kulturako ministroa da.

Ikertu:

Aipatu Gilberto Gilen azken bi musikanak (CDa).

Zein da Brasilgo lehendakaria?

Zertan datza egungo gobernuak sustatzen duen Hambre Cero programa ospetsua?



Nadine Gordimer

Mundu osoak lausengatu du Nadine Gordimer-en (Literaturako Nobel saria) eleberriek Hego Afrikako apartheidaren garaiko errealitate hunkigarria erakusteko duten modu garbia eta ausardia literarioa.

Gordimer 9 urterekin hasi zen idazten, eta 15 urte zituela haren ipuinak aldizkarietan argitaratzen hasi ziren. Ipuin laburren lehen bilduma, Face to face, 1949an argitaratu zen eta lehen eleberria, The Lying Days, 1953an.

1976an, 15.000 ikasle beltz baino gehiago bildu ziren Soweton afrikaansez hitz egiteko obligazioaren kontra modu baketsuan protestatzeko asmoz, baina Hego Afrikako polizia indarkeriaz zapaldu zituen. Gordimer harrিতා gelditu zen komunitate beltzak jasan behar zituen kondizioengatik, eta egoera horren aurrean agintariek eman zuten erantzunagatik. Hiru urte geroago, bere erreakzioa azaldu zuen Burger's Daughter eleberrian.

Gordimerrek hainbat urte igaro zituen autoerbestean, Ingalaterran eta Estatu Batuetan, batik bat. 1961ean,

Ford Fundazioaren eskutik beka bat jaso zuen Washington, DCn Arte Garaikideen Institutuan irakasle bisitari gisa aritzeko.

Gaur egun, Gordimer Hego Afrikan bizi da senarrarekin. Gordimerrek eta bere semeak Berlin (harresia eraitsi ondoren) Hego Afrikarekin (apartheidaren ondoren) konparatzen zuen dokumental batean parte hartu zuten orain dela gutxi. Dena den, lehen postuan eta guztiaren gainetik idazle izaten jarraitzen du.

Ikertu:

Zertan oinarritzen zen apartheid?

Zein da Hego Afrikako egungo erregimen politikoa?

Nadine Gordimer errefuxiatutzat har daiteke? Zergatik uste duzu ACNURek hala jotzen duela?



Agamemnon (Memos) Makris

Agamemnon Makris eskultoreak Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan utzi zuen Grezia, eta 35 urte geroago itzuli zen. Haren karrera artistikoa sari garrantzitsuene-kin saritu da, baina haren obra (diktadura-garaian sun-tsitua) ez zen baloratu Atenasen demokrazia berrezarri zen arte.

Greziaren askapenaren ondoren Institutu Frantsesean ikasteko beka jaso zuen 120 artistetako bat izan zen Makris. Parisko hainbat erakusketa ospetsutan parte hartu zuen, baina Greziako gobernuak Greziara deportatzeko presionatu zituen Frantziako agintariak. 1950ean, Makris eta haren emaztea, Zizi, errefuxiatutzat onartu zituen Hungariak, eta hango errefuxiatuen agentzien eta tokiko komunitate grekoaren laguntza jaso zuten.

Hungarian, hainbat proiektu artistikotan lan egin zuen Makris-ek, eta sekulako obrak produzitu zituen: Mauthausen memoriala, Austriako nazien kontzentrazio-esparruetako biktimen omenez. Espainiako Gerra Zibilean borrokatu zuten hungariar boluntarioen oroimenez-

ko Budapesteko monumentua eta Hungariako Pécs-eko askatasunaren oroimenezko monumentua. Bi urte igaro ondoren, Hungariako Artisten Erakundeko kide gisa onartu zuten.

1964an, Greziako gobernuak herritartasun grekoa kendu zion eta 1975 arte ez zuen berreskuratu, demokrazia berrezarri zen arte. 1979an, atzera begirako lehen erakusketa aurkeztu zuen Atenasko Galeria Nazionalean.

Ikertu:

Zein urtetan egon zen Grezia diktadurapean?

Nor izan zen burua?

Zein da Greziako egungo erregimen politikoa?



Miriam Makeba

Miriam Makeba abeslari ospetsuak apartheidaren erregimeneko desberdintasunei buruzko testigantza sendoa egin zuen, eta, horregatik, prezio altua ordaindu behar izan zuen, Hego Afrikatik alde egin behar izan baitzuen. Atzerrian zegoela, Afrikako kulturaren ikono bilakatu zen, eta 60ko hamarkadako “beltza ederra da” (Black is beautiful) mugimenduarekin lotu zen.

Makebak 1952an hasi zuen karrera ‘Manhattan anaiak’ taldeko kantari gisa. 50eko hamarkadako “Come back Africa” (Itzuli Afrika) dokumentalean parte hartu zuen, eta Europara eta Amerikara gonbidatua izateko balio izan zion horrek. Bira horietan Harry Belafone-ren mailako abeslarien arreta bereganatu zuen, eta berehala bihurtu zen famatu. Hala ere, apartheidaren kontrako dokumentalak izan zuen eragin handiagatik, herritartasuna kendu zion Hego Afrikako gobernuak.

Makebaren osaba-izebak Sharpeville-ko sarraskian erail zituzten. Handik pixka batera hil zen ama, baina gobernuak ez zion eman hiletara joan ahal izateko bisatua. 1963an, Nazio Batuen aurrean apartheidaren testigutza eman zuen. 1976an, Pata Pata abestiak mundu osoan izan zuen arrakasta, eta haren karrera artistikoak gora egin zuen. Diskoetxeek diskoak ekoizten zizkieten. 1968an, Stokely Carmichael ekintzaile erradikal beltzarekin ezkondu ostean (hirugarren senarra), Estatu Batuetako kontzertuak bat-batean bertan behera uzten hasi ziren, eta diskoetxeekin zituen kontratuak eteten.

Makebak Estatu Batuak utzi eta Gineara (Afrika) joatea erabaki zuen. Han, grabaketa-programarekin eta birekin jarraitu zuen. Apartheida salatzeke misio ausartarekin jarraitu zuen Makebak, oraingoan, Gineako Nazio Batuen Batzar Nagusiko ordezkartzako kide gisa.

1989an, Makebaren diskoak saltzeko debekua kendu zuen Hego Afrikak, eta Makeba bere aberrira itzuli zen 1990eko abenduan. Lau urte geroago, proiektu humanitario bati ekin zion Hego Afrikako emakumeak babesteko fondoak biltzeko.

Ikertu:

Zertan oinarritzen zen apartheid?

Zein da Hego Afrikako egungo erregimen politikoa?

Zerk eragin zuen Miriam Makeba errefuxiatu izatea?

Zein giza eskubide urratu zaizkio Miriam Makebari? Zergatik?

8. Gizarte kulturantzuna

Gizarte kulturantzun batean bizi gara? Zer da gizarte kulturantzuna izatea?

Zure ustez, zein dira elementurik garrantzitsuenak eta baliozkoenak gizarte kulturantzun batean?

- ✓ Elkarrekiko ulermena eta beste pertsona ezagutzea.
- ✓ "Bestearen" kulturarekiko errespetua eta tolerantzia.
- ✓ Hitz egiten den hizkuntz kopurua.
- ✓ Abegi-elkarteek edo elkarte berriek integrazioa lortzeko duten nahia.
- ✓ ...



Kofi Annanek Errefuxiatuaren Nazioarteko Egunean idatzitako mezua irakurtzea eta gizarte kulturantzunez buruz hausnartzea proposatzen dizugu.

Kofi Annan Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Errefuxiatuaren Nazioarteko Egunean idatzitako mezua ekainaren 20a

Mundu osoan errefuxiatuta eta desplazatuta dauden milioika pertsonentzat, 'etxea' da utzi behar izan zuten lekua, beren bizitzak galtzeko beldurreratik, segurtasuna aurkitzeko etsitako ahaleginean. Halaber, beste batzuentzat etxea da berriro ere ikusiko ez dutela uste duten lekua, eta aurre egin behar diote beren familia, lagun, ondasun eta ezaguna zuten guztia galtzeari. Gatazka eta jazarpenetik ihes egin ondoren, errefuxiatu-kanpamentuetako kanpin-denden osatutako hirietan sartuta eta ziurgabetasun jasanezinarekin patuak gordetzen dien etorkizunaren zain dauden bitartean, errefuxiatuen ametsik gogokoena da beren etxeetara itzultzea eta bizitza duin eta segurua bizitzea. Hori dela eta, urte honetako Errefuxiatuaren Nazioarteko Eguna 'Etxea aurkitzea' gaiari zuzenduta dago.

Azken bost hamarkadetan, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren bulegoak gatazken zorigaitzagatik erbesteratutako 50 milioi pertsona baino gehiagori lagundu die etxe berri bat aurkitzen eta berriro beren

bizitzeki ekiten. Baina Agentzia horren babespean dauden 17 milioi pertsonetarik gehienek beren etxeetara bueltatu nahi dute amorratuta. Iaz bakarrik, 1.100.000 errefuxiatu etxera itzuli ziren. Etxera itzultzeko (suntsitutako etxea izanda ere) irrika horren aparteko adierazle gisa, Afganistango hiru milioi errefuxiatu eta desplazatu baino gehiago itzuli dira 2002an beren etxeetara. Angola, Bosnia-Herzegovina, Burundi, Boli Kosta, Irak, Liberia, Rwanda, Sierra Leona eta Somaliako errefuxiatu ugari ere itzultzeko erabakia hartzen ari dira. Eta espero da Afrikako beste bi milioi errefuxiatu eta desplazatu etxera itzuli ahal izango direla.

Bestalde, inoiz itzuli ezingo diren errefuxiatuak ere badaude. Horientzako irtenbidea lehen asiloko herrialdeetan integratzea da, eta hori ezinezkoa bada, hirugarren herrialde batean finkatzea, berriro beren bizitzari ekiteko. Prozesu horren bidez, ez dugu ahaztu behar beharra duten unean errefuxiatuei laguntza ematen dien asiloherrialdeen eskuzabaltasuna. Hain zuzen, eskuzabaltasun-espíritu hori eta laguntza etengabea behar ditu nazioarteko komunitateak, baldin eta milioika errefuxiatu eta desplazatuek etxetzat har dezaketen leku bat eskaintzeko moduan egon nahi badugu. Errefuxiatuaren Nazioarteko Egun honetan, ekin diezaiozun gogotsu misio horri.

KOFI A. ANNAN
DATA: 2004KO EKAINAREN 20AN

Hausnarketarako galderak:

Zuretzat zer adierazten du urte honetako Errefuxiatuaren Nazioarteko Eguneko gaiak?

Zein pista ematen ditu gizarte kulturantzuna eraikitzeko?

Zein froga erabiltzen du Kofi Annanek errefuxiatuek etxera itzuli nahi dutela erakusteko?

Zer da ezinbestekoa beren etxeetara itzuli ezin diren pertsonentzat?

Zer eman diezaieke eta eman behar die abegi-elkarteek?

9. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua

ZER DA JRS?

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua (JRS) nazioarteko erakunde katolikoa da, eta bere xedea da ezinbestean desplazatutakoei eta errefuxiatuei **laguntzea** eta haien eskubi-deak **defendatzea**.

Gatazkek, hondamendi humanitarioek eta giza eskubideen urratzeak bultzaturik beren etxeetatik alde egin behar izan duten pertsona guztiei laguntzen die JRSk.

Zerbitzuaren lehentasuna da ahaztutako eta berehalako premiak dituzten errefuxiatuei laguntzea. Besteak beste, zerbitzu hauek ematen ditu: laguntza pastoraleko programak, haurrentzako eta helduentzako hezkuntza, gizarte- eta aholkularitza-zerbitzuak eta zainketa medikoak.

NOIZ SORTU ZEN?

Vietnamgo gerra ofizialki 1975. urtean amaitu zen arren, 1979tik aurrera hasi ziren milaka pertsona beren herrialdea uzten, gehienak itsasoz, bidai klandestino eta arriskutsuetan.

Vietnamgo biztanleekin betetako itsasontzien exodoak erabat hunkitu zuen Aita Arrupe, Jesusen Lagundiko Jenerala, eta bere probintzial batzuei eskatu zien laguntza lortzeko. Jasotako erantzuna azkarra eta eraginkorra izan zen, eta horrek hausnarrarazi zion ezinbesteko desplazamenduak eragindako krisi humanitario hartan eta beste batzuetan Lagundiak egin zezakeenari buruz, baldin eta erantzuna planifikatua eta koordinatua izango balitz.

1980ko azaroaren 14an, Aita Arrupek Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua (JRS) sortu zuen.

Harrezkero, eta gaur egun arte, JRSren xedea Jesusen Lagundiaren misioarekin erabat loturik egon da, alegia, Jainkoaren Erreinuaren justizia sustatzea, betiere, beste kultura eta erlijio batzuekin aintzat hartuta.

NON DAGO ETA ZER EGITEN DU?

Gaur egun, 60 herrialde baino gehiagotan aurki ditzakegu JRSren programak; errefuxiatu-esparruetan, atxilotze-zen-troetan eta abegi-etxeetan, eta desplazatuei hainbat alderditan laguntzen: hezkuntza, eskubide-defentsa, larrialdiko laguntza, nutrizio- eta osasun-arreta, eta sustapen ekonomikoko programak.

JRSren programek 370.000 pertsona baino gehiagori zuzenean laguntzen die 600 kolaboratzaile baino gehiagoren (horietatik 100 jesuita) eta 4.000 errefuxiatu ingururen laguntzarekin, irakasle eta osasun-laguntzaile gisa hainbat programatan lanean aritzen baitira.

JRSk zuzenean egiten du lan errefuxiatuekin, asilo-eskatzailleekin eta desplazatuekin.

Hona hemen ekintza-arlo nagusiak:

- ✓ Hezkuntza eta prestakuntza.
- ✓ Osasun-sustatzaileen prestakuntzarako laguntza.
- ✓ Laguntza psikosoziala.
- ✓ Informazioa eta ikerketa.
- ✓ Hezkuntza publikoa eta sentsibilizazioa.
- ✓ Errefuxiatuentzako lege-laguntza.
- ✓ Giza eskubideen gaineko prestakuntza errefuxiatuei eta tokiko biztanleei.
- ✓ Presentzia eta laguntza humanitarioa eta pastoralak.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari buruz informazio gehiago lortu nahi baduzu, bisitatu web orri hau: <http://www.jrs.net>

10. JRS Laku Handietan Afrikako mendebaldean

"[...] ADUANARA IRITSITAKOAN, MIATU EGIN GINTUZTEN, BALIOZKO OBJEKTU GUZTIAK LAPURTU ZIZKIGUTEN ETA BILUZIK UTZI GINTUZTEN EZKUTATUTAKO EZER EZ GENUELA ZIURTATZEKO.

HALAXE BIHURTU NINTZEN ERREFUXIATU, ZER ESAN NAHI ZUEN JAKIN GABE. HANDIK EGUN GUTXIRA ULERTU NUEN HITZ HORREN ESANAHIA:ORAIN AHOTSIK GABEKO PERTSONA NAIZ. BEHIN BATEAN, NIRE GELA TXIKIAN NENGOAN BATEAN, KANPOAN HAUR-TALDE BAT JOLASEAN ARI ZEN. ZARATA HANDIRIK EZ ATERATZEKO ESKATU NIEN, NIRE SEME-ALABAK LOTAN BAITZEUDEN. HAI EK HAU ERANTZUN ZIDATEN: "HAU GURE HERRIA DA" [...]."

CLAIRE NDAYISENGA, BURUNDUKO ERREFUXIATUA ZAIREN, GAUR EGUN BRUSELAKO JRSKO IDAZKARIA DA

"NIRE ALABARI CLEMENTINE NGIRIRIKIGONGWE IZENA JARRIKO DIOT. CLEMENTINE IZENAK JAINKOAREN ERRUKIA GOGORARAZIKO DIOLAKO. NGIRIRIKIGONGWE IZENAK, BERRIZ, 'BARKA NAZAZU' ETA 'BARKATZEN DIZUT' ESAN NAHI DU, ETA, HORRENBESTEZ, HARK HORI EGITEA GOGOAN IZANGO DU BETI, BETI"

RUANDAKO ERREFUXIATUA TANZANIAN



Zergatiak	Desplazamenduak eta biztanleria errefuxiatua
Burundiko gerra zibila, arrazoi etnikoengatik (1994-2002)	400.000 errefuxiatu Tanzanian, Kongoko Errepublikan eta Ruandan. Ia beste 500.000 daude Tanzanian ofizialki errefuxiatu-estatusa ez dutenak. Horrez gain, 400.000 pertsona daude desplazatuta herrialdean bertan.
Ruandako gerra zibila (1994-1999).	50.000 errefuxiatu, Ugandan eta Malawin, batik bat. Itzulera-prozesua ireki da.
Gerra zibila, inbasioak, biolentzia etnikoa eta anarkia politikoa Kongoko Errepublika Demokratikoan (1996-...).	410.000 errefuxiatu 13 herrialdetan, gehienak Tanzanian, Kongon, Zambian, Burundin eta Ruandan; 2.000.000 desplazatu herrialdean bertan
Sierra Leonako gerra zibila (1990-2002).	130.000 errefuxiatu Ginean eta Liberian. Itzulera-prozesua ireki da.
Liberiako gerra zibila (1989-1996) eta ondorengo matxinadak (1998 - ...).	280.000 errefuxiatu Ginean, Sierra Leonan eta Boli Kostan, eta 150.000 desplazatu herrialdean bertan.
Boli Kostako gerra zibila (2002-...).	25.000 errefuxiatu Liberian eta 500.000 desplazatu inguru herrialdean bertan.

"ZEREN BILA ZABILTZATE GIZA ODOLAREKIN MOZKORTZEN ZARETEN GERRA-GIZONAK? NAHIKOA DA! GU, AMAK, NAZKATUTA ETA ASALDATUTA GAUDE. JARRAI DEZAGUN IRMO, AUSART ETA ELKARTURIK EKINTZA GAIZTO OROREN AURREAN. BIOLENTZIARIK GABE ETA GURE AUSARDIAREN BIDEZ IRABAZIKO DUGU."

KONGOKO HAMAIKA AMEK IDATZITAKO GUTUN BATEN PASARTEA. 2000KO OTSAILA

Hausnarketarako galderak:

Kontsultatu web orri hau egunean jartzeko eta esteka interesgarrienen berri jakiteko eta Afrikari buruz informazio gehiago eskuratzeko:

<http://www.ikuska.com/Africa/Paises/Continente.htm>

- Aztertu zenbat gatazka dauden gaur egun Afrikan.
- Begiratu web-ean herrialde horiekin elkartasunean ekintza-proposamenik (kanpainak, sinadura-bilketa) badagoen. Zertan oinarritzen da? Zertan lagun dezakezu?

11. JRS eta ALBOAN misio partekatua

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eta ALBOANek ibilbide ezberdinak baina jatorri eta xede bateratuak dituzte.

Justizia eta bizimodu duina pertsona guztien –errefuxiatuak eta desplazatuak barne– ondare izatea, horixe da Jesusen Lagundiak sustatutako bi erakunde katoliko horien helburu nagusia.

JRSren xede espezifikoak da errefuxiatuen eta ezinbestean desplazatutakoen eskubideak defendatzea eta haiei laguntzea. Xede hori bera du ALBOANek ere, baina, horrez gain, lanean dihardu giza eskubideak eta parte-hartze soziala, kulturen arteko eta erlijioen arteko elka-

rrizketa, hezkuntza elkartasunean eta borondatezko lana sustatzeko.

JRS eta ALBOAN erakundeentzat, giza garapen osoaren oinarriak dira prestakuntza eta hezkuntza. Errefuxiatu edo desplazatuen esparruetan, landa-inguruneetan edo Hegoaldeko herrietako baztertutako auzoetan ere, hezkuntzak eskubide unibertsala izan behar du.

Bi erakunde horiek ez dute alde batera uzten salaketa. Ezinbestekoa da munduan desplazatuta eta errefuxiatuta dauden pertsonen egoeraren berri eta giza eskubideak errespetatzen ez diren kasuen berri ematea eta salatzea.



ALBOANen lanaren berri informazio gehiago lortzeko, bisitatu web orria:

www.alboan.org

12. Lanaren adibide bat: Cishemere

Cishemere-ko errefuxiatu-esparrua Cibitoke hiritik hiru kilometrotara dago, Bujumburatik iparraldera (Burundiko hiriburua). Han 10.000 errefuxiatu bizi dira, ondoko Kongoko Errepublika Demokratikoan orain dela bi urte beren etxeak suntsitzen hasi zen gerraren eta biolentziaren ondorioz ihes eginda.

Horietako gehienak maila sozial baxukoak dira eta hezkuntza-maila eskasa dute. Beren herrialdean nekazaritza eta artzaintzatik bizi ziren, batik bat.

Cishemere-ko esparruko biztanleak (%60 emakumeak) plastikozko karpa altu eta handitan instalatuta daude. Karpa horiek paralelo jarrita daude kale moduan, eta hala osatzen dituzte 'auzoak'. Karpen egitura hauskorra, ezegonkorra eta beti berdina da: plastiko zuriz estalitako egurrezko posteak, eta plastiko berdea teilaturako. Haurrek marrazkiak egin dituzte plastikoetan, eta hala, behintzat, 'etxeak' bata bestetik bereizten dira.

12 urtetik beherako 1.800 haur baino gehiago bizi dira han. Gehienak aspalditik bizi dira egoera horretan, eskolara joateko aukerarik gabe eta ikasturteak galtzen, bes-telako aukerarik gabe. Gainera, denbora dezente igaroko da oraindik beren herrietara itzuli eta eskolara joan izan ahal arte.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eta ALBOANek, Gasteizko Udalarekin batera, ikasgelak, uniformeak, eskolako materiala, idazmahaiak, irakasleak eta abar eskaintzen dizkie esparruan bertan. Laburbilduz, doako eta kalitatezko hezkuntza ematen die. Hala, haur horiek guztiek, errefuxiatu izan arren, hezkuntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Cishemere-ko hezkuntzaren bidez, haurrek eta beren familiek etorkizun itxaropentsuagoa izango dute errefuxiatu-esparrutik alde egin eta beren etxeetara itzul daitezkeenean.

Ikertzeko proposamena:

Bilatu Burundiko gatazkaren egungo egoerari buruzko informazioa.

- Kontsultatu web orri hauek:

<http://www.ikuska.com/Africa/Paises/Continentes.htm>

<http://www.amnesty.org/report2004/>

<http://www.alboan.org>

Zein dira gatazkaren zergatiak?

Zein dira errefuxiatuen arazo nagusiak?

Zergatik uste duzu errefuxiatuek behin eta berriz diotela beren herrialdera itzuli nahi dutela, gutxieneko segurtasun-baldintzak egon ez arren?

Aukeratu errefuxiatuekin lan egiten duen erakunde baten proiektua, eta azaldu laburki zertan datzan.

Zertan lagun dezakezu egoera hori hobetzeko?